

# KOSTALDE HELEZINA

## COSTA INACCESIBLE





## Biziraupena kostalde helezinean

### Supervivenia en la costa inaccesible

Itsaslabarrak, ebakiak, arrokoz beteriko kala eta marearteko zabalgunek, itsasoa ukitzen duten pareta malkartsuak... Kantauri itsasoaren errealitatea hauxe da. Gune lauak eta hondartza luzeak ez dira ohikoak hemen. Leku ezkutuek eta hautsiekin osatzen dute euskal kostaldearen nortasuna.

Itsasontzi batean Muskiztik Hondarribirako tartea itsasertza jarraituz egingo bagenu 240km-ko bidaia izango genuke gure aurrean. Ibilaldi luze honetan zehar itsaslabarrak dira ohiko paisaia, tarte osoaren %85a gutxi gora behera. Tartean, hondartza txiki batzuk aurkituko ditugu ere, kostaldeko herrietako kaia eta portuekin

Acantilados, cortados, calas y rasas mareales llenas de rocas, paredes verticales que tocan el mar... Ésta es la realidad del mar Cantábrico. Zonas llanas y largas playas no son habituales aquí. Lugares repletos de recovecos y quebrados conforman la personalidad de la costa Vasca.

Si fuéramos desde Muskiz hasta Hondarribia en barco siguiendo la línea de la costa, tendríamos un viaje de 240km por delante. A lo largo de este trayecto los acantilados serán el paisaje habitual, presentes aproximadamente durante un 85% del recorrido. Entre medias, encontraremos pequeñas playas, intercaladas



Oka ibaiaren estuarioa, Urdaibaiko Biosferaren Erreserban kokatzen dena, hainbat kilometro barneratzen da lehorrean ekosistema ezberdinak sortuz.

El estuario del río Oka, integrado en la reserva de la Biosfera de Urdaibai, se adentra varios kilómetros creando ecosistemas únicos.

txandakatuz. Itsasadarrak eta estuarioak ere badaude, lehorrean kilometroak barneratzen direnak. Izan ere, hauetan sartuko bagina gure bidaia askoz luzeagoa izango litzateke, 300km-tik gorakoa.

con puertos y muelles de municipios costeros. También hay rías y estuarios, que se extienden varios kilómetros tierra adentro. De hecho, si nos adentráramos en estos, nuestro viaje sería mucho más largo, superando los 300km.

Lurretik sarbide erraza duten guneak dira gizakion presio handiena jasan eta eraldaketa nabarmenenak izan dituztenak. Bertan kokatu ditugu itsasoarekin zerikusia duten azpiegitura guztiak: kostaldeko herriguneak, merkatal-portu handiak (Abra eta Pasaiaiko Badia), aisialdirako zerbitzuak hondartza eta kirol portuetan, errepideak, aparkalekuak, jolasguneak, etab.

Los lugares con fácil acceso desde tierra son los que más presión han soportado por parte del ser humano, y los que han sufrido cambios más evidentes. En estos puntos es donde hemos erigido las infraestructuras que tienen relación con el mar: municipios costeros, grandes puertos comerciales (El Abra y la Bahía de Pasajes), servicios para el ocio en playas y puertos deportivos, carreteras, aparcamientos, zonas de juegos, etc.

Aztertu Programako Azterkosta kanpainan ere, heltzeko errazak diren gune hauek dira parte-hartzaileek gehien bisitatzeko dituztenak. Izan ere, askok leku berberak izaten dituzte ikergai. Iazko datuen arabera, Bizkaia eta Gipuzkoako itsasertzaren %12a aztertua izan da 2014 urtean, ia-ia kostaldeko herri, kai eta hondartzen osotasuna.

En la campaña Azterkosta del Programa Aztertu también son los puntos de fácil acceso los más estudiados y visitados por las personas participantes. Tanto es así que muchos grupos repiten en las mismas zonas de muestreo. Según los datos del año pasado, en 2014 se analizó el 12% de la costa de Bizkaia y Gipuzkoa, lo que representa casi la totalidad de pueblos, muelles y playas.



Kaioak gizakiok eraldatutako eremuetan bizitzera moldatu dira eta euren populazioak ez daude arriskuan. Hala ere ez da gauza bera gertatzen hainbat itsas hegazti espeziekin.

Las gaviotas se han adaptado a vivir en espacios humanizados y sus poblaciones no sufren ninguna amenaza. No obstante, esto no ocurre con muchas otras aves marinas.

## Harrezi naturalak

Ekosistemen eraldaketek espezie askoren aukerak mugatu dituzte. Batzuk moldatu egin dira, nitxo berri bat bilatuz gizakiokin batera. Beste batzuk, berriz, kostalde helezinak eskaintzen duen babesean aurkitzen dute bizirauteko aukera.

Ondo moldatua egon behar da izaki bat labarrek eskatzen duten bizimoduari aurre egiteko. Haize hotz indartsua, olatuen talkak, kresalaren gazitasuna, lurzorua falta... Guztiak dira baldintza gogorak, baina hainbat landare eta animalia errentzat haxe da beraien etxea. Batzuk betidanik bizi izan dira hemen. Beste batzuentzat, mugako gune baztertu hauek dira bizirauteko aukera bakarra.

## Murallas naturales

La transformación de los ecosistemas ha limitado las opciones de muchas especies. Algunas se han adaptado y comparten un nuevo nicho junto al ser humano. Otras, en cambio, encuentran la oportunidad de sobrevivir al cobijo de la costa inaccesible.

Un ser vivo debe estar preparado para las condiciones que ofrecen los acantilados. El fuerte viento frío, los golpes de las olas, la salinidad del salitre, la falta de suelo... Todas son condiciones duras, pero para varias plantas y animales este es su hogar. Algunas especies siempre han estado aquí. Otras muchas encuentran su única oportunidad de sobrevivir en estos parajes extremos y alejados.

# Armeria euscadiensis

Espezie endemikoa, Euskadin soilik topa dezakeguna (hortik euscadiensis izena), Billano lurmuturretik, Gorlizen, Higer lurmuturrera, Hondarribian. Oso baldintza konketuak beharrezkoak ditu hazteko, horregatik benetan kaltebera da ekosistemen eraldaketen aurrean.

Hostorik gabeko zurtoin tenteak dituzte, puntan lore arrosa-moreak agertzen direlarik. Hostoak oinarrian kokatzen dira, distiratsuak, eguzki izpiak islatzeko egokiak. Kontutan hartzekoa da ahuntzek landare honekiko duten zaletasuna, populazioetan kalte larriak sor baititzakete.



Espezie endémica, únicamente la podemos encontrar en Euskadi (de ahí euscadiensis), desde el cabo Billano, en Gorliz, hasta el cabo de Higer, en Hondarribia. Requiere de unas condiciones muy concretas para crecer, por lo que es especialmente sensible a las transformaciones de los ecosistemas.

Tienen tallos rectos desprovistos de hojas, con flores rosa-moradas en la punta. Las hojas se sitúan en la base, brillantes, apropiadas para reflejar los rayos del sol. Es de tener en cuenta la afición de las cabras por esta planta, lo que puede producir daños importantes en las poblaciones.



Hareharrizko itsas-labar silizeoetan hazten da, beste landare batzuekin batera, itsas-zipriztinak iristen ez diren lekuetan, baina beti haizeak garraiatutako kresalaren eraginpean. Ohikoa da maldak eta labarrak estaltzen dituzten txilardietan aurkitzea.

Argazkia: Jaizkibel.

Crece junto a otras plantas en acantilados silíceos de arenisca, fuera del alcance de las salpicaduras de las olas, pero siempre bajo la influencia del salitre transportado por el viento. Es habitual en los brezales que tapizan laderas y acantilados.

Foto: Jaizkibel.



## Zuhaitz formako malba (*Lavatera arborea*)

### Malva arborea (*Lavatera arborea*)

Kostaldeko arroka eta are-gunetan hazteko ahalmena du, batez ere hegaztiak ohikoak diren lekuetan. Berez elikagai gutxiko lurzoruak dira hauek, baina hegaztien gorozkiek lurzorua aberasten dute landarearen hazkuntza erraztuz. “Ongarritutako” lurzoruak oso gogoko ditu, horregatik ez da arraroa ortu eta laborantza-landetako mugetan aurkitzea, beti ere 600 metroko altitudeta gainditu gabe.

Ur gazia gradu ezberdinetan onartzen dute landare hauek, ur gazi-gezeetatik hasita (itsasadarretan), itsasoko ur gazienetaraino. Salinitate kontzentrazio handi hauei aurre egiteko guruin bereziak dituzte hostoetan, bertatik gehiegizko gatza kanporatzen dutelarik.

Tiene la capacidad de crecer en zonas rocosas y arenales costeros, sobre todo si la presencia de aves marinas es habitual. Aunque estos son de por sí lugares pobres en nutrientes, las deposiciones de las aves los enriquecen, lo que aprovecha la planta para germinar. Su predilección por suelos “abonados” hace que no resulte extraño encontrarla también en límites de huertas y campos de cultivo, siempre por debajo de los 600 metros de altitud.

Estas plantas toleran diferentes grados de salinidad, desde aguas salobres (en las rías), hasta las aguas más saladas en el mar. Para hacer frente a la alta concentración de sal poseen glándulas especiales en las hojas, por donde se deshacen del exceso.



Gure kostaldeko uharte txikiak (Izaro argazkian) hegazti komunitate handiak gorde ditzakete urte osoan zehar. Leku paregabeak dira *Lavatera arborea* hazteko.

Las pequeñas islas de nuestra costa (Izaro en la imagen) pueden albergar grandes comunidades de aves durante todo el año. Son lugares inmejorables para la *Lavatera arborea*.

## Itsastxorien garrantzia

Itsas hegaztien, lurzorua elikagaiz betetzeaz gain, beste faktore onuragarriak dituzte ere *Lavatera*-rentzat.

Batetik, txorien kakak oso aberatsak dira fosfatoan, eta honek landareen gazitasunarekiko tolerantzia handiagotzen dute. Horrela egiaztatzen dute kontrolpean egindako frogak.

Bestetik, landarearen haziak leku batetik bestera eramateko garraio ezin hobea bihurtzen dira kaio eta bestelako lumadunak. Erraz itsasten dira lumetan, eta hainbat urtez iraun dezakete ernamuiandu aurretik, baita itsasoan murgildu ondoren ere.



## La importancia de las aves marinas

Las aves, además de llenar el suelo de nutrientes, contribuyen con otros factores beneficiosos para la *Lavatera*.

Por un lado, los excrementos de los pájaros son ricos en fosfatos, lo que aumenta la tolerancia de la planta frente a la salinidad, tal y como han demostrado estudios realizados.

Por otro lado, las gaviotas y otras aves se convierten en un modo de transporte idóneo para propagar las semillas. Éstas se pegan fácilmente a sus plumas, y pueden aguantar varios años antes de germinar, incluso después de haberse sumergido en el mar.



## **Basolibondoa (*Olea europaea* var. *Sylvestris*)**

### **Acebuche (*Olea europaea* var. *Sylvestris*)**

Olibondoaren antzerako zuhaizka da, baxuagoa, eta hosto eta fruitu txikiagoekin. Berez espezie mediterranearra da, baina oraindik ere populazio mugatu batzuk mantentzen ditu kantauriar isurialdean, antzinako garai bateko klima beroago baten adierazle. Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan ageri da espezie hau, "Galtzeko arriskuan" daudenen artean.

Basolibondoa oso ur gutxirekin bizi daiteke, eta eguzkiaren argia eta berotasuna ondo onartzen ditu. Itsasoak temperatura erregulatzeko duen ahalmena ere ondo datorriko, ez baitutuzte izozte gogorrak jasaten.

Es un árbol similar al olivo, más bajo, y con hojas y frutos más pequeños. Se trata de una especie mediterránea, pero que mantiene algunas poblaciones acotadas en la vertiente cantábrica, indicadoras de un antiguo clima más cálido. Aparece en el Catálogo Vasco de Especies Amenazadas en la categoría de "En peligro de extinción".

El acebuche puede vivir con muy poca agua, y tolera bien la luz y el calor del sol. También se aprovecha de la capacidad termorreguladora del mar, ya que no soporta fuertes heladas.



Zierbenako mendebaldeko labarretan eta Ogoño Lurmuturrean (argazkia) labarretan biltzen dira Euskadin aurki ditzakegun basolibondoak, arrakalatan metatzen den lurzoru apurra aprobetxatuz Banan-banan sakabanatuta aurkituko ditugu, batzuetan pareta bertikaletan kokatuta itsasoa justu azpian dutelarik.

Los acebuches que podemos encontrar en Euskadi se sitúan en acantilados occidentales de Zierbena y el Cabo de Ogoño (foto), aprovechando el escaso suelo que se acumula en las grietas. Los encontramos desperdigados de uno en uno, incluso sobresaliendo de paredes verticales con el mar justo debajo.



# Ekaitz-txori txikia (*Hydrobates pelagicus*)

## Paíño europeo (*Hydrobates pelagicus*)

Itsas hegazti txikia, txolarrearen tamainakoa, kolore ilunekoa eta ipurtxuntzur zuriarekin. Buru biribil oso bereizgarriarekin, mokoaren gainean bi "hoditxo" ditu narinak deiturikoak, jaterakoan barneratutako gehiegizko gatza kanporatzeko.

Portaera gautarra izaten dute ekaitz-txori txikiak, espeziearen ikerketa zailtasunez betetzen duena. Honi gehitu behar zaio kostaldeko uharte bakar-tuetan soilik egiten dutela habia, arrakalatan gorderik. Aipatutako arrazoiengatik ez ditugu oso ondo ezagutzen hegazti honen ohiturak, ezta populazioaren gora-beherak.



Pequeña ave marina, del tamaño de un gorrión, de color oscuro y con el obispillo blanco. Tiene una cabeza redondeada muy característica, y sobre el pico destacan dos "conductos" llamados narinas que sirven para expulsar el exceso de sal ingerida al alimentarse.

Los paíños suelen tener un comportamiento nocturno, lo que dificulta sobremanera el estudio de la especie. A esto hay que sumarle que únicamente anidan en islotes apartados de la costa, protegidos entre grietas. Por estas razones no conocemos bien las costumbres de este ave ni los pormenores de sus poblaciones.



Bizkaiko kostaldean irla txikiak ugariagoak dira, eta hainbat gunetan topatu dira ekaitz-txori koloniak, Izaro edo Aketxen adibidez. Gipuzkoan beriz, ikusia izan den puntu bakarra dago, Amuitz uhartea (argazkia) Higer Lurmuturraren parean.

En la costa de Bizkaia las pequeñas islas son más abundantes, y se han identificado colonias de paíño europeo en varias de ellas, como en Izaro o Aketxe. En Gipuzkoa en cambio, hay un único punto donde se ha visto, el islote de Amuitz (foto), frente al Cabo de Higer.



## **Ubarroi mottoduna (*Phalacrocorax aristotelis*)**

### **Cormorán moñado (*Phalacrocorax aristotelis*)**

Tamaina handiko hegaztia da ubarroi mottoduna, kolore beltzekoa, moko eta azpimoko horiarekin. Espeziearen bereizgarria den mototsa dauka buruan, kopetan hazten diren luma tente batzuk osatzen dutena, nabaria batez ere ugaltze denboraldian. Gandor hau da bere "lehengusua" den ubarroi handiarekin (*Phalacrocorax carbo*) duen ezberdintasun nabarmenena.

Urte osoan ikus dezakegu gure kostaldean, bertan ugaltzen baita, algaz eta gorotzez osatutako habiak arroka paretetan eginez. Arrautzak erruteko eta txitak hazteko momentuak dira espeziearentzat arrisksuenak gizakion hainbat aktibitatek

El cormorán moñado es una ave de gran tamaño, de color negro, con el pico y su base amarillos. Lo más característico de la especie es el moño que luce en su cabeza, formado por varias plumas que crecen desde su frente, evidente sobre todo en época de reproducción. Esta especie de cresta es lo que le distingue de su "primo" el cormorán grande (*Phalacrocorax carbo*).

Podemos verlos durante todo el año en nuestra costa, ya que se reproduce aquí, elaborando un nido en las paredes rocosas formado de algas y excrementos. La temporada de puesta y cría es el momento más peligroso para la especie debido a ciertas actividades



Ubarroi mottodunaren habia erlaitzean kokatuta. Alga eta beste itsas-landarez osatua dago, hegaztien gorotzekin elkar itsatsita.

Nido de cormorán moñudo colocado sobre una repisa del acantilado. Suele estar compuesto de algas y plantas marinas unidas con los propios excrementos de las aves.

zirikatu baititzakete: ur kirolak, motordun ontziak, eskalada, hondartza denboraldia, etab. Horregatik itsasertzeko amildegi eta irletako zonalde isolatuak bilatzen dituzte kumeak babesteko.

Urpekari bikain honek gogokoen dituen arrainak sardinak eta txitarroak dira, besteak beste, eta hauek harrapatzeko 45 metro sakonean murgildu daiteke. Espezie oso preziatuak dira ere gizakiontzat, ubarroiarentzat mehatxua bihurtzen dena, itsasontziekin arrantza guneak eta arrain-espezieak partekatzera behartuta ikusten baitu bere burua.

desarrolladas por el ser humano: deportes acuáticos, embarcaciones a motor, escalada, temporada de playas, etc. Por ese motivo buscan zonas aisladas en precipicios e islotes para proteger a sus polluelos.

Los peces más apreciados por este gran buceador son las sardinak y chicharros, entre otros, y puede llegar a sumergirse hasta 45 metros en su busca. Del mismo modo, son especies muy preciadas por el ser humano, lo que se convierte en una amenaza para los cormoranes, ya que se ven obligados a compartir zonas de pesca y las mismas especies de peces.



Hazitako txitek udan zehar habitatik ateratzen hasten dira itsasoan lehendabiziko ibilaldiak eginez, beti ere gehiegi urrundu gabe.

Durante el verano los polluelos ya crecidos comienzan a abandonar el nido haciendo sus primeras incursiones mar adentro, aunque sin alejarse demasiado.

**902 160 138**  
**aztertu@euskadi.eus**  
**www.euskadi.eus/aztertu**